

Bezero berriak erakartzeko iragarkiak egingo genituzke komunikabideetan, ondoren, gure enpresak sortutako web gunean bezeroei aukera emango genien gustuko duten motorra edo motorraren kolorea nahiz berezitasun bat gehitzeko. Horri esker, lortu ditugun bezeroak guren enpresa ahoz aho zabalduko dute, bezero gehiago lortuz eta gure enpresa handituz.

Bestalde, bezeroek beren eskabideak egin ahal izango dituzte denda fisiko batera joan behar izan gabe. Horrek ez du esan nahi ez dugula denda fisikorik izango noski, izan ere, denda fisiko bat izango dugu eta hemen motoak egun batez erabiltzeko aukera emango dugu. Motorraren erabilera eta diseinua konprobatu eta bezeroaren gustukoa den jakiteko.

Ez da ahaztu behar, enpresaren web orriak bezeroen zalantzak argitzeko bezeroen arretarako zerbitzu pertsonalizatua edukiko dutela.